


MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

285 - 2020ko azaroa



EDOZEIN JAIALDI,
HAN DA MANOLI



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
HARATEGIA

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbztua ere
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7
31890 BETELU

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hermandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, J.A. Garai-koetxea, Juanjo Zubieta, Manoli Olaetxea, Araizko Zaporeak, Euskaraldia, Santos Argiñarena, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Larraungo Udala, Euskara Zerbitzua eta Jesus Elozegi.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

04



KUXKUXEAN Azaroko zorion agurrak.

08



ELKARRIZKETA



Manoli Olaetxea.

12



IZAN GAZTE Larraun Ibarreko Mikroipuin Lehiaketa!

14



BATZARRE Lekubonuak.

18



ERREPORTAJEA



Araxes Garaiko Mankomunitatea.

22



KULTURA Euskaraldia.

25




KIROLA Espainiako Itzulia.

31



AGENDA





Luka Soria Iriarte
Azaroaren 23an, 2 urte.
*Zorionak ttikitto!!
2 urtetxo bete dituzu jada!
Segi orain arte bezain
maitakorra izaten ta disfruta-
tu ezazu pila bat.
Asko maite zaitugu.
Zure familiaren partez.*

Aitor Ruiz
Urriaren 26an, 4 urte.
*Zorionak Aitor!
Egun ona pasa dezazu-
la eta muxu haundi bat.
Nuria, Aitor eta familia
guztiaren partez.*



Haizea Garmendia Aristi
Azaroaren 9an, urte bat.
*Zorionak ttikitina! Atte, ama,
Eñaut ta famili guzin partez
muxu pottolo bat!!*



Amaia Mikeo Alduntzin
Azaroaren 22an, 26 urte.
*Zorionak Amaia! Muxu handi
bat etxekoen partez.*



Laida Garmendia Huarte
Azaroaren 8an, 10 urte.
*Zorionak Laida eta ongi ospatu
dezazula zure eguna! Muxu
handi bat etxekoen partez.*




Manoli Olaetxea
Urriaren 30ean, 80 urte.
*Zenbaki borobila duzu aurten Manoli! Zorionak zure
senarra Xabier eta Aralar irratiko familiaren partetik.
Jarraitu ezazu irrintzi egiten denak alaituz!*



Aiora Zabaleta Erro
Azaroaren 27an, 7 urte.
*Zorionak Aiora!!!!
Asko maite zaitugu printzesa!!!
Muxu handi bat etxekoen partez!!*

Urko Tolosa Iraola
Azaroaren 10ean, 8 urte.
*Zorionak maitia. Goxatu zure
urtebetetze egunean. Muxu
erraldoi bat, aitatxo, amatxo
eta Juneren partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ATZERATU DA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa atzeratzea erabaki du Nafarroako Bertsotzale Elkartek. 2021aren hasieran zen egitekoa 45. edizioa, baina Covid-19aren ondorioz aurrerago jokatuko dela iragarri du. Pandemiaren bilakaeraren arabera erabakiko da data berria.



ARAIZKO ARGAZKI ZAHARREN BLOGA

Gaintzako Joxe Ramon Zubimendik "Basajaun" sortutako bloga ezagutzera eman du Araizko Udalak. Araizko Zaporeak Azokan zen aurkeztekoa, baina osasun egoera dela eta bertan behera gelditu zenez, orain eman du ezagutzera Araizko argazki zaharrak biltzen dituen ataria: araizkoak.blogspot.com



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Lekunberriko Udalak aurrekontu parte-hartzaileak aurkeztu ditu. Dagoeneko udaleko webgunean (www.lekunberri.eus) jarrita dago jada, proiektuak aurkezteko araudia. Azaroaren 10ean amaitzen da epea.

► Santos Argiñarena (Errazkin)




*Aitzaki gutxirekin
gera gu elkartzen
elkar goxarazi ta
elkarri tentatzen
adieraziz garbi
zer dugun pentsatzen
serio ta algaraka
han gerade jartzen
nahi gabe pilaka gai
zaizkigu ta sortzen.*

*Elkarren berri dugu
nolabait ikasten
aprososak gara gu
bazterrak nahasten
hitzak zorroztu eta*

*eurekin jolasten
hizketaldi luzeak
ta kantuan hasten
norbait lo baldin bada
dugu esnarazten.*

*Umorea sarritan
da gailentzen dena
saltsan eta hizketan
galdurik ordena
konfidantzaren biluztu
bakoitzaren sena
taldeko terapia
zorion ta pena
birus ororentzako
txertorik onena.*



Datorren hilean bertsoan jarriko dugu... Xabier Eizagirre "Ostokaitz".

TXIKIZIO GEHIAGORIK EZ LARRAUNEN

Larraunen, gure begien aurrean, bi proiektu txikitzaile egikaritu nahi dituzte. Alde batetik, Arakiletik Lekunberriaraino —Madotz, Oderitz, Astitz eta Alli barrena—, Naturgy enpresak gasbide bat zabaldu nahi du. Bestetik, Iberdrolak tentsio altuko linea elektriko bat hedatu nahi du Lekunberrietik Leitzara bitarte, Uitziko lur eta basoak modu urratzailean zeharkatuz.

Bi proiektuek ondorio berberak izanen lituzkete: kalitate handiko basoak urratzea, sistema hidrogeologikoa arriskuan jartzea, belar-soroak galtzea, babestutako espezie batzuk (Pirinioetako muturluzea eta okil gibelnabarra, besteak beste) mehatxatzea, kultura-ondare materiala kaltetzea... Bi proiektuei inposizioaren usaina darie, Larraungo herritarren iritzirik eskatu gabe diseinatu dira eta. Izan ere, bi proiektuek jatorri bera daukate: Lekunberriko industrialdea zabaltzea, hau da, oraindano azpiegitura izugarri horiek gabe iraun duen industrialde baten gosea.

Gure ustez, proiektu hauen prozedura guztiz onartezina izan da: erabakiak gutxi batzuek (Nasuvinsak, Lekunberriko Udalak) hartu dituzte, ikuspegi lokalistaz, eta Larraungo osotasuna kontuan hartu gabe; ez da eztabaida publikorik egin alternatiba desberdinak kontrastatzeko; aurkeztu diren aldaera sostengatzaileak, arrazoirik eman gabe baztertu dira; ontzat eman dira lurrraren artifizializazioa, beraren erabilera merkantilista/espekulatiboa eta energia-iturrien inguruko hausnarketarik eza. Azken finean, eta komunikabideetan adierazi eta erakutsitakoaren arabera, industrialdearen planifikazioa interes pribatu bakan batzuen neurrira egin da.

Hau ez da bidea. Teoriari dagokionez, Nafarroako Gobernu eta gainerako instituzioak, «ezinbestekoa» omen den trantsizio eko-sozialaz eta energetikoaz barra-barra ari dira beren diskurtsoetan. Praktikan, ordea, betiko lege zaharra dugu: "industrialdekeria" eta inposizioa, herritarren ekarpen txikien ere entzuteko eta onartzeko prest egon gabe. Denok behar eta nahi ditugu enplegu duina, bizi-kalitatea, lurralde sostengarri eta osangarri bat... Ez, ordea, sufritzen ari garen moduekin. Eta are eta gutxiago, Larraungo herri txikiei —munduan herri txiki askori gertatu bezala— ondasun kolektiboa (herri-lurrak, basoak, soroak,...) merke-merke kentzen zaienean, kapitalak eta enpresek beren irabaziak egin dituzten.

Kalaxka Elkartea

MENDIALDEA MANKOMUNITATEKO HONDAKIN BILKETAKO LANGILEEK GURE DESADOSTASUNA ADIERAZI NAHI DUGU ZUZENDARITZAREN JARRERAREN AURREAN

2010ean Mankomunitatea sortu zutenetik, langileok gure lan baldintza prekarioak eta lan osasun eta arriskuaren inguruan zeuden gabeziak zuzentzeko borrokatu behar izan dugu. Aurrez, Nafarroan sortuak ziren beste mankomunitateetako langileen lan baldintzak berdintzen saiatu gara. Bide horretan langileen delegatuak eskatu behar izan ditu neurriak gabezia horiek zuzentzeko, bai Nafarroako Osasun Publikoko Institutuari kontsultak eginez bai eta LAB sindikatuko beste delegatuei laguntza eskatuz. Zuzendaritzatik ez da bide horretan borondatek izan, oztopoak baizik. Zorritarrez, oraindik ere asko dira zuzentzeko dauden gabeziak.

Orain berriz lan hauetan jardun den langileen delegatua kaleratzeko prozesu planifikatu eta biziari baten aurrean aurkitzen gara. Hori dela eta argi utzi nahi dugu ez gaudela inola ere ados Mikel Berekoetxea kaleratzeko zuzendaritzaren jarrerarekin eta berak eginiko lana goraiatzen dugula.

Mendialdea Mankomunitateko Hondakin Bilketako langileak: Joxean Irizar, Iñigo Iparragirre, Joxe Mari Aizpirtarte, Urko Gorostidi, Iñigo Baigorri eta Asier Elizegi.

GU ERE BAI

Urriaren 19an hasten den Espainiako Vueltak 3 etapa egiten ditu Euskal Herrian, noiz eta pandemiaren bigarren olatuaren erdian. Herritarren osasuna lehentasi beharra dagoela iruditzen zaigu eta harrigarria da, inoizko osasun daturik okerrenak ditugun honetan, kirol ekitaldi arrotz honekin aurrera egiteko dagoen burugogorkeria. Pandemia eragiten ari den krisialdi ekonomiko eta sozialean, baliabide publikoak mota honetako ekimenetan xahutzea onartezina deritzogu.

Gure herriaren izaera, kultura eta gure kirolariak aldarrikatzea izan dugu beti helburu eta horretan jarraituko dugu aurrerantzean ere. Datozen hilabeteetan Nafarroa luze zabalean zein Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetan burutuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia luzatzen diegu herritarrei. Euskal selekzioen aldeko aldarria ozen entzun dadin guztion ekarpena ezinbestekoa delako.

GU ERE BAI



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



ekin
rotulación
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

URAREN ZIKLOA LEKUNBERRIN: INGURUMEN POLITIKA ETA FISKALITATEA

Azken asteetan, Larraungo Udalak *Ura eta Lurra* proiektua jarri du martxan, eta beste zenbait helbururen artean, garrantzi handia eman dio uraren zikloa aztertzeari eta horren inguruan sentsibilizatzeari. Urriaren 4an txango gidatua egin zen Iribasko iturburutik Lekunberriko ur araztegiara eta EHBilduko Lekunberriko kideok adituen laguntzarekin ikusi eta ikasi genuen zer-nolako eragina daukan urak gure ibarrean.

Azken urte hauetan, uraren inguruko politikak aztergai izan dira hainbat administrazioetan, ura funtsezkoa delako gizakiak bizirik irauteko, garapen sozioekonomikorako, energia sortzeko, elikagaien ekoizpenerako edo ekosistema mantentzeko. Eta behin baino gehiagotan entzun dugu "uraren kultura" berria behar dugula. Nazio Batuen Erakundeak berak 2030erako jarri dituen helburuetan ageri da eta hainbat instituziok ur-arloko politika jasagarrien alde egin dute: ekonomia zirkularren alde eta gizakiak ekosistemetan duen eragina murriztearen alde.

Lekunberriera etorritz, herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren parte garrantzitsu bat da Iribastik etortzen den ura; handik dator etxeko iturrietan ateratzen den ura eta industrialdean sortzen diren lanpostu asko ere ur hori lehengai gisa darabilten industriei loturik daude. Horrenbestez, garapen eredia aztertzen dugunean, ura ezinbestean hartu behar dugu kontuan.

Lekunberri uraren inguruan eztabaidak izan ditugu udalean, bereziki zerbitzuari eta fiskalitateari dagokionez; zehazki, uraren eta saneamenduaren tasek eragin dute desadostasun gehien. 2013. urtean, adibidez, Lekunberriko Udalak 245.000 €-ko mailegua jaso zuen Nafarroako Gobernutik hornitzaileekin genituen zorrak kentzeko eta konpromiso batzuk hartu behar izan zituen mailegu horren truke: besteak beste 2014. urtetik 2023ra arte, urtero saneamendu eta ur tasa %2 igotzeko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak. EHBildu ez zegoen ados erabaki horrekin, herritarren gain jartzen baitzen Udalaren zorra ordaintzeko zama, eta kontrako

botoa eman genuen. Gaineratu behar da konpromiso horrek ez zuela inongo loturarik uraren politikekin.

Azpirarragarria da, bestalde, 2010 eta 2020 urte bitartean, saneamendu tasa %40 igo izana gure herrian. Eta ur kontsumoari dagokionez, gutxi gastatzen duten etxeei (41 m³ bitarte) % 38 igo da tasa eta gastu handiagoa dutenei (41 m³ baino gehiago) % 42 igo da. Horrek zeresan handia eman du Lekunberri, eta jende asko kexu da. Eta EHBildutik behin baino gehiagotan azaldu dugu gure desadostasuna politika fiskal horrekin, gure iritzi igoera horiek ez direlako justifikatzen. Esan behar da Covid-19aren testuinguruan, aurtengo tasetan bertan behera gelditu dela gastu altua dutenei ezartzen zaien tasa.

Urriaren 4an uraren zikloaren inguruan antolatu zen txango gidatuak berretsi egin du pentsatzen duguna: ura baliabide produktibo edo merkantzia hutsa baino askoz gehiago dela eta, ondorioz, daukan garrantzia eman behar zaiola. Uraren ziklo osoa aintzat hartu behar dugu bere kudeaketa diseinatzerakoan, eta eragina duten jardura guztien gaineko hausnarketa egin behar da (basoak, industria, turismoa, etxebizitza eredia, bizitza eredia...). Eta, jakina, logika berdinean politika fiskala aztertzea ere ezinbestekoa dugu.

Lekunberri eta inguruan altxor bat dugu, Aralar, eta Iribastik ateratzen den ura altxor horren ondorioa da. Zaindu dezagun aurrera egiteko.

Lekunberriko EHBILDU

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota **STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

“Erretiraturuz geroztik hasi nintzen irrintziak botatzen”

Manoli Olaetxea uitziarra aski ezaguna da gurean. 80 urte bete berri ditu eta oraindik ere hamaika saltsatan parte hartzen du. Aralar Irratiko kolaboratzailea da, katekista, Erretiratuen Elkarteko kidea eta Larraunen ospakizunik bada han da bera bere irrintziekin eguna alaitzeko prest.

Manoli, zu Uitzin jaioa zara, ezta?

Bai. Uitziko Maixtar-etxean. Maineko maizterrak ginen gu. Aita, Feliciano Olaetxea, Mainean jaioa zen eta ama berriz, Bedaiokoa (Gipuzkoa), Josefa Antonia Iturbe. Amaren ahizpa bat Mainera ezkondu zen eta gure ama neskame etorri zen. Azkenean, bi ahizpak Maineko bi anaiarekin ezkondu ziren.

Eta zuek zenbat anai-arreba izan zarete?

Zazpi, baina gaur egun hiru baino ez gara bizi. Zaharrena Juanito zen, gero Juanita, Joxe, Valeriano, Alfonso txikia zela hil zen eta hurrengoari ere Alfonso jarri zioten eta gazteena ni.

Aitak zertan egiten zuen lan?

Atte mando batekin gauzak saltzen ibiltzen zen herriz herri. Saltzaile ibiltari horietakoa zen. Tolosatik azukrea, kafea eta halakoak ekartzen zituen eta hemen arrautzak eta oi-

“Guk mojekin erdaraz ikasi genuen eta haiek gurekin berriz, euskaraz”

loak biltzen zituen Tolosan saltzeko. Ni askotan joaten nintzen Tolosako azokara saltzera.

Uitziko eskolan ikasi al zenuen zuk?

Bai, mojekin, Orixenean. Lau mojado izaten ziren han. Sor Irene Lara, Sor Carmen Navarro, Sor Abelina Contreras eta Sor Catalina Perez. Oinez ikasi orduko hasten ginen eskolara joaten. Nire etxea nahiko ondoan zegoen eta atsedendaldietan amak leihotik txokolate zati bat botatzen zidan beti. Neskatook eraiki naren alde batean genuen eskola eta mutikoez beste aldean. Neska asko eta asko gelditzen ziren han aste osoa pasatzen. Larraungo herrietako jende asko eta baita gipuzkoarrak ere.

Eta oroitzapen onak al dituzu?

Bai, oso onak. Guri eskaierak garbiarazten zizkiguten eta gero mojek erroskillak ematen zizkiguten. Herriko guztiek eramaten genien egur bete gurdi, bai mojei eta baita apezari ere. Eta baratzetik ere eramaten zitzaizkien gauzak. Baina herriak ere soldata ordaintzen zien. Akordatzen naiz hamaika laguneko batzar batean nola aritu ziren hizketan moja gaixoei soldata igo behar zitzaiela, merezi zutela...

Beraz, ongi zaintzen zenituzten herrian...

Bai, bai. Mijekin denetik ikasten genuen. Kontuak egiten, pianoa jotzen, idazmakina handi bat ere bazen idazten ikasteko. Eta arratsaldetan ere joaten ginen josten eta bordatzen ikastera. Mijek 1976. urte



Juanito, Josefa Antonia (ama), Alfonso, Juanita, Manoli (hiru urte zituela) eta Jose. Arg.: utzitakoa.

inguruan alde egin zuten Uitzitik, baina 30 urterekin ere arratsaldero joan ohi ginen neguan josten, bordatzen eta puntua egiten ikastera. Mahai batean egoten ginen, azpian su-ontzia jarrita. Guk mojekin erdaraz ikasi genuen eta haiek gurekin berriz, euskaraz. Batek biñipin asko ikasi zuen.

Dena den, zuek etxean euskaraz eginen zenuten...

Bai, dena euskaz! Gure amak ez zekien erdaz!

Eskola hamalau urterekin utzi eta gero etxean egon zinen?

Bai. Gutxi izaten ziren orduan ikasten segitzen zutenak. Bakarren batek pianoa edo horrela. Neskame joaten ziren asko, Gipuzkoara eta Iruñera. Ni neguan joaten nintzen. Iruñean izan nintzen eta baita Donostian ere. Bi edo hiru hilabetez. Goizean etxeko lanak egin eta arratsaldetan jostera. Eta horrez gainera, askotan Maineko tabernan laguntzen ibiltzen nintzen, pestak zirela edo edozein ospakizunetan han ibiltzen nintzen lanean.

Uitziko pestak onak izan dira beti!

Bai. Herrian ere diru asko zen orduan eta gainera denbora askoan, orduko alkateak, Joaneko Miguel Jose Etxarrik, pestak egiteko bostehun pezeta banatzen zituen etxe bakoitzeko.

Eta zenbat pesta egun izaten zien zure garaian?

Lau egun biñipin bai eta batzuetan bost. Mainean jende asko biltzen zen. San Miguel egunean 99 lagun biltzen ziren, orduko pilota partidako pilotarik, bertsolarik... Goizetan meza izaten zen eta gero pilota partidak. Okiñenak eta horiek jokatzeko zuten. Ordu batean gelditu egiten ziren partidak eta apezak Angelusa erretzen zuen. Eta partidak amaituta-



Hautzaroko eta gazte garaiko oroitzapen ederrak ditu Manolik. Arg.: utzitakoa.

koan soinu pixka bat izaten zen.

Zenbat taberna zeuden garai hartan?

Hiru taberna baziren Uitzin. Han ibiltzen ginen eta pozik!

Eta gauetan goiz erretiratzen al zineten?

Bai. Orduan gauetz ez ginen ateratzen. Mutilak bai, baina neskak ez ginen ateratzen. Inauterietan ere berdin. Gu arratsaldetan baino ez ginen ateratzen pixka bat dantzatzera. Akordatzen naiz mutilak mojetara joaten zirela baimena eskatzera gu atera ahal izateko. Mojak guretzako bigarren ama batzuk ziren.

Dantza non izaten zen?

Plazan. Plazan sueltoan dantzatzen ginen eta barrura sartzen ginenean baita balsean ere. Apeza hor ez zen sartzen. Hiru tabernatan izaten zen soinua eta denak herriak ordaintzen

“Orduan gauetz ez ginen ateratzen”

“Ez nintzen etxean gelditzen, lagun berriak segituan egiten nituen”

zituena. Musikoak Andoaindik eta Tolosatik etortzen ziren. Tolosako “Tarragona” eta Andoaingo Joxe Mari.

Horiek zer ziren akordeoilariak?

Bai, batek akordeoia eta besteak saxofoia jotzen zuen. Plazan denek batera jotzen zuten, taldean, baina gero banatu egiten ziren tabernetan jotzeko.

Ettxera bueltatuz... Etxe txikia zen zuena...

Bai txiki-txikia. Hiru logela genituen. Pestetarako gortina eder batzuk jartzen genituen eta usai goxoa jartzeko menta belarrarekin ibiltzen ginen. Amak paretak ere zuritzen zituen orduan. Goian ganbara genuen belarra gordetzeko eta ukuiluan txerriak eta behiak eta...



80 urterekin ere gaztetan bezain aktibo jarraitzen du Manolik. Arg.: Labrit.

Hiru logela haietan gurasoek eta zazi anai-arrebek egiten zenuten lo?

Bai eta izeba bat ere bagenuen. Ahal zen bezala! Burdinazko oheak genituen bola doratu batzuekin. Eta koltxoiak berriz arto txukiñekin egindakoak izaten ziren, baina ardi ilearekin egindakoak ere baziren. Horiek urtean behin askatu eta harrotu egiten ziren eta izugarrizko altura hartzen zuten haiek. Ahizpak aulkia jartzen zuen ohera igotzeko.

Eta txorrotako ura ba al zenuten?

Bai. Nik txikitatik ezagutu dut. Baina ama labaderora joaten zen arropa garbitzera. Ni ere ailegatu izan naiz han garbitzera. Bi labadero zeuden herrian, bat behealdean eta bestea berriz, Gorritira bidean. Oroitzen naiz nola ibiltzen ginen “Lagarto” xaboiarekin eta “Azulete”-arekin garbitzen. Ura bai, baina komunik ez zen etxean. Ohol bat baino ez genuen zulo batekin ukuiluaren gainean eta gainerakoan, pixontzia. Gauetan ez ginen komunera joaten orain bezala. Denok pixontzia izaten genuen bertatik bertara.

Bainu ontzirik ere ez zen izanen orduan...

Ez. Sukaldean ahal zen bezala. Gizonetakoak errekarra joaten ziren bainatza eta labaderoan ere garbitzen ziren. Neskak ez. Neskatoak ginean eta errekarra joaten ginenean.... Karamarro asko izaten zen orduan eta badakizu zer egiten genuen? Galtzerdietan sartu! Eta gero amak haik erristak!

IORTIA EL INCA ESTIVAL - HORTZ-ESTETIKA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Emakumezkoek galtzak ere ez zituzten erabiltzen?

Nik 30 urte inguru izango nituen. Tolosan saldutako gaztainen diruarekin erosi nituen lehen galtzak. Lehendabizi garoa egitera joateko janzten hasi ginen. Hasieran lotsa ematen zigun eta gainera soinekoa janzten genuen galtzak estaltzeko. -“Hoi galtzakin baziek!”- esanen zutelako. Eta gizonezkoak galtza motzetan ikusiz gero berdin. Nire anaia galtza motzekin ibiltzen hasi zenean horiek parrak egiten zizkietenak. Umeak hamalau urte arte denak galtza motzetan ibiltzen ziren, baina handik aurrera beti galtza luzeekin.

Eta igandetan zer egiten zenuten?

Lekunberriko Gabari etxera joaten ginen, han musika izaten zen. Sutondoan ibiltzen ginen dantzan. Ni “sala de fiesta” askotan izan naiz. Gabarira oinez etorri eta oinez bueltatzen ginen. Eta gainerakoan, paseoan ibiltzen ginen hara eta hona. Mutilak Lekunberriko tabernetako izkinitan egoten ziren neskei begira eta askotan etxera laguntzen gintuzten, baina batzuetan bidean haserretu eta buelta ematen zuten! [Kar-kar-kar].

Malloak dantzalekuan ere ibili izan zara...

Bai, askotan. 41 urte nituela ezkondu nintzen Xabierrekin, Zizurkilen, Arantzazuko Amaren elizen eta nire lagun asko berriz 19 urterekin ezkondu ziren. Horregatik, ni gehiago ibili naiz hango eta hemengo festetan. Herriko lagunak ezkondu zirenean, gorritiarekin eta azpiroztarrekin ibiltzen hasi nintzen eta baita beteluarrekin ere. Ez nintzen etxean gelditzen. Lagun berriak segituan egiten nituen.

Eta mutil-lagun asko izan zenituen?

Ez. “Yo a mi bola!”. Tolosara ere asko joaten ginen. Ahizpa bat nuen Iruran eta nire senarrak oraindik gogorazten dit zeinen gaiztoak ginen. Gu helduak ginen eta esaten omen zuten: “Neskazahar hoik joanen lieke baserrie!”. Eta guk berriz afaria ordainarazi eta etxera ekarrazazi eta gero, alde egiten omen genuen. [Kar, kar, kar]



41 urte zituela, Amasako Xabier Lizasorekin ezkondu zen.
Arg.: utzitakoa.

Orain Lekunberrin bizi zara...

Bai, orain dela hamabi urte etorri ginen eta erki gaude!

Eta orain, 80 urterekin, nolakoa da zure egunerokoa?

Goizetan sei t´erdietan jaiki eta Albiasura joaten naiz oinez. Hango sagardotegiko pareta ukitu eta etxera. Gero gosalduek eta etxeko lanak egiten ditut. Erosketak orain senarrak egiten ditut. Eta asteazken eta ostiraletan Jubilotekara joaten naiz hamaiketarik ordu-batetara. Han gimnasia, eskulanak, memoria ariketak... Denetik egiten dugu Arantxa Saigosekin. Zortzi lagun elkartzeko gara eta gustura! Astelehenetan Martinengana joaten naiz, Aralar Irratira. Zortzi urte ere badaramatzat hurrei katekesia ematen. Eta ostiralero Leitzako azokara joaten gara.

Etxean baratzera ere baduzu...

Bai, hor ere ibiltzen naiz, baina ez dut denbora askorik izaten, bilera guztietara joan behar izaten baitut. Lehengoan Larraun Biziko bileran izan nintzen.

Askotan entzuten zaitugu irrintziak botatzen. Betidanik izan duzu horretarako afizioa?

Ez, erretiratuz geroztik hasi nintzen. Lehen sekula ez!

Eta nola ikasi zenuen irrintziak botatzen?

Holaxe! Sin más (orain esaten duten bezala).

Larraun Ibarreko Mikroipuin Lehiaketa!

Larraun eta Lekunberriko Euskara Batzordea

Larraun eta Lekunberriko Euskara Batzordeak Mikroipuin Lehiaketa antolatu du Larraunen. Lanak aurkezteko epea dagoeneko irekita dago eta azaroaren 23an amaituko da.

Parte hartzaileak.

Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten guztiak parte har dezakete:

- Bizitokia Larraun ibarrean dutenek (LHko 5. mailatik Batxilergoko 2. mailara)
- Ibarberri Ikastetxean ikasten dutenek, bizitokia edozein dela ere (LHko 5 mailatik DBHko 2 mailara)
- Amazabal Institutuan ikasten dutenek, bizitokia edozein dela ere (DBHko 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara)

Mailak.

Lehiaketan honako maila hauek bereiziko dira:

- b) LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena.
- c) DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.
- d) DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.
- e) Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea:

Lanak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 23an bukatuko da. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean.

Lanak aurkezteko modua:

Bi modu izango dira lanak aurkezteko.

1- Goitzen batez izenpetu beharko dira lanak. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina). Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen



goitizena eta maila. Euskara zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

2-Goitzen batez izenpetu beharko dira lanak. Mezu elektronikoko bat bidali beharko da helbide honetara: larbeleareuskaraz@iparmank.eus, eta datu hauek jarri beharko dira

Mezuaren izenburua: Mikroipuinak 2020

Mezuaren edukia: izen-abizenak, goitizena, helbidea, telefonoa, maila eta adina zehaztu beharko, eta artxibo erantsian, mikroipuina, goitizenez sinatuta.

Baldintzak:

- Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- Gaia librea izanen da.
- Luzera: ez dago aurrez ezarritako mugarik; Mikroipuin izendapenaren barruan sartzen den oro onartuko da.

Sariak:

- LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena > 40 euroko bonu bat, materialetan gastatzeko Lanbroa liburu dendan
- DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena > 40 euroko bonu bat, materialetan gastatzeko Lanbroa liburu

dendan

- DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena > 40 euroko bonu bat, materialetan gastatzeko Lanbroa liburu dendan
- Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena > 40 euroko bonu bat, materialetan gastatzeko Lanbroa liburu dendan

Sari banaketa:

Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da, 2020ko abenduaren 3an. Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa betetzeko, adingabeen kasuan, parte-hartzaileen gurasoek edo tutoreek onartu egiten dute parte-hartzaileei argazkiak ateratzea sari banaketa ekitaldian Larraun ibarreko euskarri komunikatiboetan zein heldabideetan zabaltzeko. Adinez nagusiak direnen kasuan, haiek beraien izen dira baimena emango dutenak.

Argitalpena:

Euskara Batzordeak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egileen izenak adieraziz.

Gazteen Larraungo Bertso Eskolan izen emateko epea zabalik!

Idatzizkoan baino zaleagoa bazara ahozkoan, hemen duzu beste proposamen erakargarri bat: Larraungo Bertso Eskola. Hiru taldetan aritzeko aukera eskainiko da aurreten astelehenero.

- LH 6 – DBH 2: 15:15-16:15.
- DBH 3 – DBH 4: 16:30-17:30.
- Batxilergoko ikasleak: 17:45-18:45.

80 euro ikasturte osoa. Eman izena bertsozale.eus/nafarroa atarian.



Parte hartu Larunblai egitasmoan osasun neurriak mantenduz!

13

Aurki hasiko da Larunblai egitasmoa Larraunen. Bi larunbatean behineko saioak izanen dira (16:00-19:00), Plazaola Kirolgunean. D ereduko, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko ikasleei zuzenduta daude. Larunblai saioen helburua, eskolatik kanpo haurren arteko harremanak euskaraz izatea da, horretarako ekintza dibertigarriak eginez. Talde bakoitza bi hezitzailek gidatuko dute ikastur-

tean zehar eta behar bezala zainduko dira osasun egoera dela eta ezarritako segurtasun baldintzak. Eman izena Euskara Zerbitzuan, 948 50 44 00 telefonora deituta (10:00-14:00) edota larbereaneuskaraz@iparmank.eus helbidera posta bidali.



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
ABOKATUAK


Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



MALERREKA-BAZTANGO BERTSONAUTAK TALDEA DA 2020KO BARDOETAN TXAPELDUN

Bardoen azken saioak egiteke zeudela iritsi zen COVID-19a gurera. Momentu horretan eten egin zen Nafarroako taldekako bertso txapelketa eta zazpi hilabete eta gero, urriaren hasieran jokatu ziren azken bi finalurrekoak, Goizuetan eta Jauntsaratsen eta joan den urriaren 17an Lizarrako Ikastolako jokatu zuten finala Leitzako *Atekaberts komeni*, Malerrekako *Bertsonautak* eta Berako *Lamixene* taldeek. Azkenean, *Bertsonautak* taldea izen zen garaile,



LARRAUN.EUS, WEBGUNE BERRITUA, HERRITARRENGANDIK HURBILAGO EGOTEKOA

Larraungo Udalak webgune berritua jarri du herritarren eskura. Urtebetean zehar informazioa bildu, argazkiak atera, edukiak antolatu eta webgunea garatu eta gero, urrian iritsi da emaitza. Udaletik azpimarratu dute webgune berria ez dela eduki finko batzuetara mugatuko, izan ere, aldaketak proposatzeko aukera izango da (621 299 301 zenbakira mezua bidaliz) eta berrien atala etengabe eguneratuko da herritarrak gai ezberdinez informatzeko.

SAN MIGUEL SANTUTEGIKO ALDARE ZAHARRA BERRESKURATU DUTE

San Miguel Santutegian, Lakuntzetxe-ko berritze lanak egiten ari dira eta eraikin horretan Santutegiko aldare zaharra topatu dute. X. mende ingurukoa izan daitekeela uste dute arduradunek. Mezak aldarearen bueltan eta apaizak erretaulari begira ospatzen zirenekoak. Azken urteetan San Miguelen egon den egurrezko aldarea kendu eta honengatik ordezkatu dute orain.





ESKATU EZAZU ERRIGORA SASKIA AZAROAREN 12A BAINO LEHEN!

Hasi da Errigoraren kanpaina berria. Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dira Azaroaren 12ra arte. Aurten, bereziki lagungarria izanen da, ezinezkoa izan baita Nafarroa Oinez, Herri Urrats zein Sortzeneko festa eta Korrika ospatzea eta horrek euskalgintza bultzatzeko baliabide ekonomikoak nabarmen murriztuko baititu. Aukeratu zure saskia www.errigora.eus atarian eta egin zure eskaria Larraungo AEK euskaltegian (948 60 47 04 edo larraun@aek.eus).



Iruñe Juanena, udal ordezkari berria. Arg.: utzitakoa.

ESKERRIK ASKO AINHOA, ONGI ETORRI IRUNE

Larraungo Udaleko EH Bilduko zinegotzi gisa bere ibilbidea etetea erabaki du Ainhoa Permachek. Udaleko bere kideek ia urte eta erdi honetan zehar egindako lan guztia aitortu nahi diote. *"Larraungo aldaketa-prozesuaren bidean, komunikazio eta zerbitzu sozialen arloetan pauso garrantzitsuen lidergoa izan du udal ordezkari gisa; besteak beste, Berdintasun Mahaiaren indartze eta Emakumearen Hilabetearen eredu berriaren sorreran, gizarte zerbitzuekiko elkarlanaren sustapenean, sare sozialetako kontuen eta Udalaren webgunearen eguneratzean... Eskerrik asko, Ainhoa!"*. Orain, bere orde, Iruñe Juanena iribastarra batuko da udal gobernuko lan-taldera. *"Ziur gaude bere gaztetasunaren indarrak eta bere formakuntzaren gaitasunaz ekarpen ederra egingo diola lantalde honi, eta ondorioz, gure bailarako aldaketa-prozesuari. Ongi etorri, Iruñe!"*

LEKUNBERRIKO UDALAK ABENDUAREN 31RA ARTE LUTATUKO DITU LEKUBONOAK

25 euroko bonuak 20 eurotan salgai jarri ditu Lekunberriko Udalak, bertako ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuak sustatzeko helburuarekin. Pertsona bakoitzeko sei bonu eskuratu daitezke Mitxasenea Kultur Etxean. Joan den martxotik Lekunberri erroldatuta egotea eta adinez nagusia izatea dira bete beharreko baldintzak.



Gurasoek nire bizitza saldu dute sare sozialetan

Amaren sabelean zaude, zuk ez dakizu baino jaio aurretik ederki dokumentatu dute zure gurasoek haurdunaldia. Ia bi milioi jarraitzaile dituen sare sozialetako kontuan jarri dute. Gainera, zure "sexua" argituko duen ekografia Espainiako reality-rik ikusienean aterata da.

Zure jaiotza grabatu dute, ez dakit zenbat milioi pertsonak zure aurpegia ikusi dute zuk zurea ispiluan ikusi eta ezagutu aurretik. Zure lehen pausoak, lehen hitzak, kasketak, bainuak, eskolako lehen eguna(k)... publiko egin dituzte. Espainian eta Latinoamerikan famatua zara! Bueno, zu eta zure beste sei anai-arrebak.

Ikusleek eskolaz kanpo zer egingen duzun/duzuen dakite: neska zaharrenak eta anaietako batek futbola dute astelehen eta ostegunetan, beste arrebak psikologoa asteazkenetan, gimnasia erritmikoa...

Zure amak toallan grabatu zaitu, dutxatu ondoren azazkalak mozten ari zinen bitartean, eta arreba/ahizpa txikiena bainatzen ari den bitartean. Eta, noski, kremaren bat publikizatzeke ere aprobetxatu du berak. Txikia janzen den bitartean, bikien tiraderak erakutsi ditu. Hain zuzen euren azpiko arropa gordeta dagoen tiradera. Et, et! Baina ikusleei erakusteko zeinen ongi ordenatzen duen batek, eta zeinen "txapuzero" besteak.

Zu eta zure gainerako anai-arreben



bizitza osoa sare sozialetan dago ikusgai. Zuen oniritzirik gabe. Amak dio, ordea, asko gustatzen zaizuela grabatzea eta bideoetan zuen burua ikustea. Diot nik edozein umeri gustatzen zaiola hori, are gehiago ikusita gurasoek txalotu egiten zaituztela egiten duzuen bakoitzean.

Nerabegarora iritsi zara eta institutuko lehen eguna duzu. Jende berria ezagutuko duzu, haiekin elkarbanatzen hasiko zara... Zure pertsonalitatea eraikitzen hasiko zara, badakizu, halako alter ego bat eraikitzeke unea: zuk erabakiko duzu zer kontatu eta nola. Baina ez kezkatu, ez duzu deus egin beharrik eta!

Gurasoek egin dute zuregatik. Zure klaseko guztiek dakite zein zaren, zenbat anai-arreba dituzun, zer gus-tatzen zaizun (eta zitzaizun), zertan eman/ematen duzun denbora, non egon zaren oporretan, nola moldatzen zaren familiarekin, arazorik izan duzun eskolan... Adin honetan hain beharrezkoa den nortasunaren erai-kuntza sare sozialetan egin da. Zu konturatu gabe! Ez horregatik.

Ez zaizula gustatzen guztiok dislexikoa zarela jakitea? Ez zaizula gustatzen guztiok zure jaiotza eta izan zenituen arazoak ezagutzea? Otorduetan zer-nolako kasketak izaten zenituen grabatuta egotea? Kontuak eskatu gurasoei. Haiek dutela tutoretza adin txikikoa zarelako? Tira...

Lana bilatzen hasten zarenean edozein enpresak zure azterna digitala di-da batean bilatuko du! Zure bizitza osoa biltzen dituzten bideo, argazki eta iruzkinekin eginen du topo. Bingo. Berriro ere, zuk ez duzu deus egin beharrik izanen! A zer mauka, ezta?

Ironia alde batera utzita, aurreko lerroetan azaldutakoa ez dut nik asmatu. Benetako egoera bat da. Ez dut izenik esanen, baina sare sozialetan halako hamaika kontu aurki ditzakegu. Astebete behar izan dut familia honen egunerokoa goitik behera ezagutzeko. Kontziente gara honek duen arriskuaz? Ba al dakigu sare sozial horietara EDOZEIN sar daitekeela eta EDOZER egin dezakeela dokumentu horiekin?



luze

Beldur mordoa dagoenekoa...

Kaixo irakurle, a ze garaiak bizitzen ari garenak. Inguruan dagoen emozio nagusia beldurra dela esango nuke. Ni ere ez naiz hortik eskapatzen. Hau idazten ari naizen goizean PCR proba egin dut, atzo gauean dardarka eta sukarrarekin egon nintzen. Lo egin beste erremediorik ez nuen izan. Aurreko egunetan temple arraro xamarrarekin nengoan. Udazkenetan pasatu ohi zait, gero egun hauetan, etengabeko berri murriztaileekin etab., ez zait arraroa egiten arraro sentitzea... baina atzoko sukarrarekin eta dardararen berezitasuna zela eta, badaezpada ere... Gaur ongi esnatu naiz, baina... badaezpada ere...

Ba bai, beldurra dantzan dabil garai hauetan. Aurreneko beldurra norberaren osasuna galtzearena da. Nik ez dut horren beldurrik izan, oraingo ere ez dut, baina atzo gauean ohean dardarka nengoanean, pentsatzen nuen zer izan behar duen horrek osasunez gaizki dagoen batentzat, beste arazo batzuk dituen batentzat... Ospitaleetan egon den eta dagoen jendeaz ere oroitu nintzen, gaixo sentitzen diren horiez. Osasunaz, sentitzeaz eta minaz dugun kontzeptuaz aparte, honek, heriotzarekin dugun harremana gainbegiratzen jarraitzeko beharra azaleratzen duela uste dut. Behar baino beldur gehiago diogula uste dut. Jarraitzen dut pentsatzen heriotzaren eguna oso ate garrantzitsua dela, non agian misterio asko argituko zaizkigun... Ez nioke heriotzari gehiegizko beldurrik eduki nahi, munduko errespetu guztiarekin. Pentsatzen dut erraza dela hau



esatea ustezko distantzia batetik... Beti presente eduki nahi nuke.

Bigarren beldurra, besteei kalte egitearen ingurukoa da. Nik hau uste nuena baino gehiago bizitzen dut. Gaur proba egitearen arrazoi nagusia, inguruan dudan jendea-ri kalte egin nahi ez izatea da, ez beraiei ezta beren ingurukoei ere. Dena den, beldur hau xantaia egiteko ere erabili daitekeela uste dut, egia esan, ez baitago gure eskutan bizitzen zer pasako den, nor eta zergatik gaixotuko den... Gertutasuna ere batzuetan ez al da oinarritzakoa? Noski, hori gabe ere bizi gaitetzke, baita taloa bakarrik janda ere... Eta besteenganako dugun "bat-bateko"

ardura hau susmagarri xamarra ere egiten zait. Erabat ari da munduan jendea hiltzen arrazoi ezberdinegatik. Uste dut benetan dugun beldurra dela gure inguruko edo maite dugun norbait gaixotzearen inguruko beldurra. Ez da hain altruista ez...

Hirugarrena, oso agerikoa egin den beldur bat, beste behin ere, autoritateari beldurra. Arauak betetzeari dagokionez noski, "motibazio" handi bat. Honen inguruan dabilen beste beldur bat, autoritate ahalguztidunaren aurrean ote gauden da, gurekin nahi duten guztia egin ote dezaketen, zer etorkizun ote datorren...

Noski, beste beldur asko ere azaleratu dira, bakarrik egoteari beldurra, pobrezia edo eskasiari beldurra, ezjakintasunari beldurra...

Ditugun beldurrez ohartzea, zein neurritan dabilzkitigun, zer eragiten diguten barrutik, zer egiten dugun kanpotik horien arabera... oso interesgarria dela deritzot. Gure sakoneko gauza asko azaleratzen ditu. Gizakia eraikitze prozesuan gaudela argi dago, ez dugu lan gutxi egina eta oraindik beste mordoxka bat falta da. Nire nahia behitzat, beldur horiek pazientzia ikusi eta etorkizunari begira nola kokatu nahi ditudan jakiteaz gain, desio dudan mundu horren eraikuntza zintzoan jarraitzea da. Behar baino beldur gehiagorik gabe. Ilusioaren eta pozaren garaia ere badelako beti, beldur guztien gaintetik, edo hobe esanda, alboan. Baina momentuan momentukoak... ea zer dioen probaren emaitzak... Besarkada eta aurrera!



Zabal

Oskar Estanga

Zaborra: gurean ere kudeatu beharreko arloa

Mikel Rekalde beteluarrak hamabost urte eman ditu Araxes Garaiko Mankomunitatean lehendakari. Orain Joxe Mari Amundarainek hartu dio lekukoa.

1987. urtean sortu zen Araxes Garaiko Mankomunitatea Azkarate, Arribe-Atallu eta Beteluko hiri hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko helburuarekin. Ondoren, Gaintza, Uztegi eta Intza ere sartu ziren. Araizko kontzejuak eta Beteluko Udala dira bertan ordezkari. Egitura hori sortu aurretik, herri bakoitzak ahal zuen moduan kudeatzen zuten zaborra. Gehienetan zulo edo txoko batera botaz. Betelu eta Arribe-Atalluren kasuan baita errekarara ere. Mikel Rekalde: *"Beteluren kasuan, traktore batekin bildu eta Minetako leize-zulo batera botatzen zen. Horixe zen hemengo kudeaketa. Eta horren aurretik errekarara. Negan uraren indarrak eramaten*

zitzen denak. Baina egia da, garai hartan oso zabor gutxi sortzen zela. Etxean hilabetean betetzen genuen poltsa bat, orain egun batean betetzen duguna".

Nafarroako Gobernuaren parte-hartzearekin zabortegia jarri zen Azkaraten, Zaraten. Zaratetxea zabortegiko makineria eta tresnak gordetzeko erabili ohi zen. Aritz eta Betelun biltzen zen zaborra Zaraten lurperatzen zuten Ramon Otamendik. Bera aritu da ordutik gaur egun arte zabor bilketa lanetan.

Mikel Rekaldek orain dela hamabost urte hartu zuen Mankomunitateko lehendakari kargua. Arribeko Angel Otaegiri hartu zion erreleboa.

Bildu berdintsu biltzen zen arren, askoz hondakin gutxiago sailkatzen zen. Papera eta baino ez zen bereizten gainerako guztitik. Ondoren etorri ziren, beira baztertzeko edukiontziak, plastikoak eta ontziak bereizteko edukiontzia, tamaina handikoak, olioak, pilak, arropa... Sailkatzea handituz joan da urte hauetan.

Aurrerapauso handietako bat Zarateko zabortegiaren itxiera izan zen, 2007. urtean. Mikel: *"Izugarrizko saltsa izaten zen han, makina batekin lurperatzen zen zaborra malda batean. Zabor kopurua ez zen inondik inora ere gaur egun kudeatzen dugun adina, baina garrantzitsua izan zen Nafarroan zehar zeuden zabortegi txiki horiek itxi eta beste modu batetara bideratzen hastea".*

Nafarroako Gobernuak hiru zabortegi egokitu zituen Nafarroa osoko hondakinak tratatzeko. Gaur egun, Culebretera (Tutera) eramaten da eskualdeko edukiontzi berdeetan biltzen dena. Ontziak Azkoienara, edukiontzi urdina Arbizura, tamaina handikoak Emauseko Trapuketarietxeratik eramaten dituzte... Antolaketa osoa garai hartan (2007. urte inguruan) sortutako Nafarroako Hondakin Partzuergoaren bitartez gauzatu zen. Mikel: *"Partzuergoa Nafarroako mankomunitate guztien artean sortu zen, Iruñerrikoa izan ezik eta guk, Mankomunitate gisa, zaborrak bildu eta garraiatzeko eskumena izaten jarraitzen dugu, baina tratatzeko lana Partzuergoaren gain utzi genuen. Konpostatzearen aldeko apustua izan da emandako azken pausoetako bat. Eredu horren bitartez organikoak den guzti hori ez da bertatik aterako eta edukiontzi berdean pilatzen dena nabarmen murriztuko da".*



Uda honetan Intzan erreka garbitu zuten auzolanean.

“Atez atekoarekin lortzen ari diren emaitzak lortu ditzakegu”

Araxes Mankomunitateko datuen arabera, biztanleko eta urteko 370,67 kg hondakin jasotzen dira: %68 errefusa, %5 ontzi arinak, %10 papera eta kartoia, %9 beira, %5 organikoa eta %3 bestelakoak.

Mikel, inguruko zabor mankomunitateekin alderatuta antzeko datuak dituzuen arren, edukiontzi berdean gehixeago pilatzen da eta konpost gutxiago egiten da Araitz eta Betelun...

Beti pentsatzen dugu oso txukunak garela, baina beti bada paperen artean bestelakoak botatzen dituen edo alderantziz. Organikoan garbi dago atzetik goazela. Zenbat eta gehiago konpostatu edukiontzi berdeko portzentajea jaitsi egiten da. Horregatik konpostagailuen erabilera sustatzea falta zaigu.

Azken urteotan administrazioan ere aldaketak izan dira...

Bai. Orain Mankomunitateak bere idazkaria eta kontu-hartzailea du, Joanes Aleman eta Oihane Soroa administrari lanetan dabil. Nik pertsonalki hamabost urte hauetan, denetik egin behar izan dut, kontuak eraman, ordainagiriak pasa, fakturak kontabilizatu... Mankomunitate txikia izanik ere, neke handia suposatu du horrek niretzat. Azken bi urteotan berriz aldaketa handia eman da zentzu horretan. Bestalde, Joseba Sanchez teknikariaren laguntza ere badugu orain eta izugarri erraztu da bidea.



Mikel Rekalde Araxes Mankomunitateko lehendakari-za utzi du.

Besteak beste, auzo-konpostagailuak jarriko dira aurki, ezta?

Bai eta ea asmatzen dugun behar bezala kudeatzen. Beste hainbat lekutan konpostagailuak jarri eta gero arazoak sortu dira gaizki kudeatzeagatik, usaina dela, bizilagunen kexak direla.... Gu atzetik joatea behintzat balio dezala besteek sartuetako akatsetatik ikasteko.

Zergatik hartu duzu lehendakari-za uzteko erabakia?

Hautagai bat azaldu delako! Orain arte ez da hautagairik egon eta urteak joan eta urteak etorri hortxe jarraitu dut, nahiz eta dagoeneko gogoan banuen kargua uzteko. Joxe Mariri bereziki zaborraren gaia interesatzen zaio eta primeran. Alde egiteko lehen aukera izan da eta aprobetxatu egin dut! [Kar, kar]

Eta zein gomendio emanen zenioke Joxe Mariri?

Gaur egun gaian aditua dugu teknikaria daukagu eta idazkariaren eta administrariaren lanari esker askoz

errazagoa da mankomunitatea kudeatzea. Baliabide horiek aprobetxatzeko esanen nioke. Hala ere burua non hautsi ere izanen du. Konpostagailuak jarri eta horrekin asmatzea erronka polita izanen da. Kudeaketarekin asmatu beharko da, atzerako pausoak oso txarrak izan ohi direlako. Mankomunitate honek atez atekorik antolatu beharrik gabe lortu dezake atez atekoarekin lortzen ari diren emaitzak. Inolako azpiegitura handirik gabe. Norberak bere etxean. Hori baino gauza aberatsagorik ba al dago?

Nola ikusten duzu hondakinen kudeaketaren etorkizuna?

Partzuergoan eta goragoko politikan aldaketak etorriko direla pentsatzen dut. Hondakinen kudeaketa asko hobetu arren, izugarria da sortzen den plastiko kopurua, beira kopurua... Gizakiok mehatxu bat gara planetarentzako. Politika berdeak ezartzen hasiko dira eta ekoizpena jaisteko ereduak etorriko dira.

“Denon eginbeharra da hondakinak behar bezala kudeatzea”

Joxe Mari Amundarainek, jaiotzez Ibarakoa izanik ere, 28 urte daramatza Atallun bizitzen. Gaur egun Arribe-Atalluko Kontzejuan dabil eta orain bere gain hartu du Araxes Garaiko Mankomunitateko lehendakaritza.

Nolatan onartu duzu lehendakaritza kargua?

Kasualitate hutsa izan da. Arribe-Atalluko Kontzejutik etxeetan idatzi bat jaso genuen azalduz ez zela inor aurkeztu hauteskudeetara eta ea inor prest ote zegoen Kontzejuan sartzeko. Azkenean, Xabi Sarasa, Aitor Ezeiza, Jontxu Gorriti, Maite Aranburu eta ni neu aurkeztu ginen. Aldi berean, egun horietan bertan Araxes Garaiko Mankomunitateko zuzendaritzaren osaketa egin behar zen. Lau urtetik behin egiten da. Ni oso arduratuta nago zaborraren kudeaketarekin eta nire alea jartzeko aukera ikusi nuen. Hemengo zabor kudeaketa ez da oso txukuna izan nire iritziz, aurrekoek ere urte asko zeramatzaten eta beste bultzada bat eman nahi diogu orain.

Zehazki noiz izan zen kargua hartzea?

Irailaren erdialdean izan zen.

Eta nola aurkitu duzu Mankomunitatea?

Oso mankomunitate txikia da hau, aurrekontu txikia duena. 900 pertsona ingururi ematen dio zerbitzua. Ekonomikoki egoera onean dago, baina uste dut kudeaketan asko dugu hobetzeko.

Zein diru iturri ditu?

Biztanleen tasetatik jasotakoa da iturri nagusia, eta horrez gain, Nafarroako Gobernuitik iristen zaizkigun diru-laguntzak.

Zein da zeuen buruari ezarritako helburu nagusia orain?

Etxeetan eta bertan dauden base-rietan sortzen den zabor guzti hori kudeatzea eta irtenbide bat ematea. Etxeetan zenbait herritarren konpostagailuak dituzte eta konposta egiten dute, baina ez denek eta badira gaur egun bertan, egunerokoa biltzen ez diren zenbait hondakin. Datorren urtetik aurrera dena biltzeko gai izatea da asmoa, gaur egun legeak agintzen duen moduan.

Konpostagailuak banatzen ari zarete...

Bai eta datorren urtearen hasieratik aurrera auzo konpostagailuak jartzea da asmoa. Herri bakoitzeko bat jarriko da.



Joxe Mari gogotsu hartu du zabor hondakinaren kudeaketaz arduratzen den Mankomunitatearen ardura.

Etxe bat
...
bagkade bat

MAILOPE
Egin zaitez Mailopeko bazkide eta zuzenean bi hilabetero egingen diren zozketetan parte hartuko duzu!
mailope@labrit.net

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte
HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

Eta orain arte konpostagailu indibidualekin dabiltzanak zer moduz moldatzen dira?

Egiten dugunok ongi egiten dugula uste dut. Urtero edo bi urtetik behin bisita bat egiten da etxez etxe irizpideak azaldu eta ongi egiten den edo ez ikusteko, baina ez da horren jarraipen zehatza egin. Hasiko gara horretan ere.

Oraindik edukiontzi berdeetan hondakin asko pilatzen al dira?

Bai, edukiontzi berdean, bertan joan behar ez lukeen zabor asko botatzen da eta edukiontzi hori ahalik eta gutxien erabiltzen saiatu behar dugu. Araitz eta Beteluko zenbait tokitan edukiontzi berdea baino ez dago eta herriko beste leku batzuetan beste edukiontziak ere egon badauden arren, batzuk bertan botatzen dute dena. Gure asmoa da datorren urtetik aurrera leku guztietan gutxienez hiru edukiontziak egotea, berdea (errefusa), urdina (kartoia/papera) eta horia (plastikoa/ontziak). Hartara, berdean askoz gutxiago bildu beharko litza-teke. Etxe aurrean edukiontzi berdea bakarrik izanez gero, askok ez dute esfortzurik egiten hurrengo puntura joan eta dagokion lekuan botatzeko.

Beraz, neurri horrekin sailkapena hobetzea espero duzue?

Bai. Ea neurri horrekin eta konpostagailuen erabilera sustatuz, edukiontzi berdea ahalik eta gutxien erabiltzea lortzen dugun. Geroz eta gehiago erabili orduan eta gehiago ordaindu behar izaten diot Nafarroako Hondakinaren Partzuergoari.

Nola kudeatuko dira auzo konpostagailuak?

Guk kudeatuko ditugu. Herritarrek egin beharko duten gauza bakarra, hondakin organikoak konpostagailua bota eta ondoko edukiontzian izanen duten materia lehor pixka bat gainetik botatzea izanen da. Ez dute ezer gehiago egin beharko Mankomunitatearen ardura izanen da astero begira eta nahastea. Zaborraren gaia gutxi landu da hemen eta



Joan den hilean Arriben, errekan, koltxoi bat azaldu zen.

denok ikasten joan beharko dugu. Jendeari azaldu beharko zaio nola egingen diren gauzak, ulertarazi gure hobe beharrez dela, gure osasunerako mesedegarri direla. Eta mesedez errekaraz ezin dugula ezer bota. Gure errekarak ditugun altxor batzuk dira eta errekaraz botatzen dugunak itsasoan amaitzen du, arraiek jaten dute eta ondoren gu arrai horiek jaten ari gara. Aurreko astean bertan, Arribeko zubiaren ondoan, koltxoi handi bat azaldu zen errekararen erdian. Jarreraz horiek ez dira onargarriak. Errekaraz ez dugu ezer bota behar! Denok kontzientzia hartu behar dugu gure hobe beharrez ari garela. Bilerak egingen ditugu auzo konpostagailuen erabilera eta etxean egin beharreko sailkatze lana azaltzeko. Ahalegina eskatzen du, baina pixkanaka ikasiko dugu nola egin behar dugun.

Hala ere azken urteotan hobera egin dugu...

Bai. Ni hona iritsi nintzenean, 1992an, uste dut edukiontzi berdea eta urdina bakarrik genituela. Ordurako orokorrean jada ez zen errekaraz botatzen zaborra, baina batzuek oraindik bota egiten dute. Edukiontziak etxe aurrean eduki eta hala ere errekaraz

“Zaborraren gaia gutxi landu da hemen eta denok ikasten joan beharko dugu”



Urte hasieratik aurrera edukiontzi nagusiak astean behin hustuko dira.

botatzen dute zabor poltsa. Nik hori lbarran ere ezagutu dut nire haurtzaroran. Hobetzen ari gara, baina hemen lanketa egin behar da eta bilketa era txukunagoan egin behar dugu.

Bilketaren maiztasuna aldatu egingen al da?

Bai, datorren urtetik aurrera edukiontzi berdea, horia eta urdina astean behin bilduko dira. Gaur egun plastikoa eta papera hamabost egunetik behin biltzen da, baina askotan gainezka egiten dute. Helburua da plastikoa eta papera maizago biltzea eta berdearen maiztasuna murrizten joatea. Hori lortu beharko genuke banaketa ongi eginez gero.

Eta gainerako hondakinak?

Arropa eta olioak jasotzeko badira dagoeneko leku finkoak. Eta Bete-lun eta Arribe-Atallun etxola bana jarriko dira, pilak, bateriak, tonerrak eta bestelako hondakin kutsakorrek botatzeko. Tamaina handiko altzariak eta etxetresna elektrikoak biltzeko ere hainbat leku ezarriko dira. Ondoren, gure bildu eta biltegira eramanez ditugu eta gure biltegia betetzen denean Iruñetik etorri eta eramanez dituzte. Azken finean, sortzen ditugun hondakin mota guztiak biltzea da helburua. Baita bertako baserrietan sortzen den artilea eta belarra biltzeko erabiltzen diren plastikoa eta sokak ere.

Tamaina handiko hondakinak jasotzeko zerbitzua eskaintzen dute Emausko Trapuketariak, ezta?

Bai. Hitzarmen bat dago Emausko Trapuketariarekin eta hilean behin etortzen dira. Aurrez telefonoz deituz gero, etxera bertara etortzen dira jasotzera, baina askok ez dute deitzen, ezjakintasungatik akaso.

Nola ikusten duzu plastikoaren arazoa?

Ari da murrizten, baina uste dut agintariak neurri zorrotzagoak hartu beharko lituzketela. Plastikoa atzean dagoen industria indar handia dauka eta gobernuek oso pauso txikiak ematen dituzte. Denok kontzientzia hartu behar dugu, erosketak egitera goazenean arduraz erosteko. Dagoeneko ohitu gara poltsa berrera-bilgarriak erabiltzera. Hori bada pauso bat, baina ahalik eta plastiko gutxiengoa duten produktuak erosten hasi behar dugu. Guk gure esku dagoena egin beharko dugu. Denon lana da.

Herritarrek Mankomunitateari ordaintzen dioten urteko tasa igotzeko asmoa duzue?

Bai, orain ordaintzen dugun tasa nahiko baxua da. Etxe bakoitzeko urtean 103 euro inguru ordaintzen da, beste mankomunitate askotan berriz 140 euro dira. Orain zerbitzuak hobetu nahi baditugu beharrezkoa izanen da zertxobait igotzea. Azkeneko bederatzietan urtetan Mankomunitateak ez du mankomunitateari berari dagokion tasa igo. Hala ere gainerakoen aldean baxuagoa izaten jarraituko du.

Zein mezu luzatuko zenieke herritarrei?

Hau dena denon arteko egin beharra dela, gure osasunean eragina duela eta gure errekek eta mendiak zaindu egin behar ditugula, ez ditugula zaborrez bete. Ulertzen dut esfortzua egin behar dela zaborra sailkatzerako orduan, baina denon onerako da. Guk, mankomunitate gisa, hobekuntzak eta erraztasunak eskainiko ditugu eta ea horrela jendea ere motibatzen dugun gauzak ongi egitera.



Marc Soler katalana txapeldun Lekunberriko helmugan

Espainiako Itzuliaren 2. etapak Lekunberrin izan zuen helmuga, joan den urriaren 21ean. Iruñetik irten eta 151 kilometro egin behar izan zituzten Lekunberrira iristeko. Aralarko San Migel santutegitik behera etorri ziren gurea. Goizean goiz herriko kale nagusia hesiz, antolakuntzako kideez eta Polizia Nazionaleko agenteez bete zen herria. Herritarrei Itzulia hedabideen bitartez jarraitzeko gomendioa luzatu zieten bai Udaletik eta baita antolakuntzatik ere, baina hala ere, zenbait herritarrek ezin izan zioten eutsi helmuga aurrez aurre ikusteko grinari. Azkenean, *Movistar Team* taldeko Marc Soler katalanak irabazi zuen bigarren etapa. Hiru ordu eta berrogeita zazpi minutuko denbora egin zuen.

Pilota ere, behin-behinean, geldirik

Larraungo Pilota Elkartek, Mendialdeko Banakako Txapelketa behin-behinean atzeratzea erabaki du. Aurrerago helduko diote berriro txapelketari eta horren ondotik binakakoa jokatu da. Bestetik, Aurrera eta Umore Ona elkarteekin batera, lankidetzaz hitzarmena sinatu du, klubak indartu, entrenamendu nahasiak egin eta elkarrekin txapelketak antolatzeko.

Ttutturrek bertan behera utzi ditu mendi irteerak

COVID-19aren kasuen gorakada dela eta Ttutturre Kiroel Elkartek bertan behera utzi ditu hileko azken igandetako mendi irteerak. Osasun larrialdiaren aurrean Nafarroako Gobernua ezarritako neurriekin batera ezinezina litzatekeelako behin-behinean irteerak ez egiteko erabakia hartu du elkartek. Ohiko bitartekoen bidez jakinaraziko dute berriro irteerak antolatzen hasten direnean. Bitartean, zaintzeko eskatu diete Ttutturreko kideek herritarrei.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

Edertasun zentroa

DESKONTU BONUA

3€

BETELU

948 513 083
696 732 290

- ▶ Abenduaren 31 baino lehen ileapaindegian edo estetika zerbitzuan hitzordua eskatuz gero, 3€ko deskontua izanen duzu opari!
- ▶ Hitzordua eskatu eta txartel ebakigarri hau aurkeztu baino ez duzu egin behar.



Bertako ekoizleekin osatutako saskia jarri du salgai Araizko Zaporeak

Urriaren 25ean zen egitekoa Araizko Zaporeen Feria, baina Covid-19aren aurka ezarritako prebentzio-neurriak direla eta, antolakuntzak bertan behera utzi behar izan zuen. Hala ere, bertako ekoizleei laguntza eskaintzeko eta herritarrei bertako produktuak eskuratzeko bidea errazteko, ferian parte-hartu behar zuten ekoizleen produktuekin saski ederra osatu dute. 50 eurotan jarri dute salgai. Saski honako produktu hauekin osatu da: Lezaetako gari ogia eta ur eta mahaspasa opilak, Nerearen artoa eta zerealen bi ogi, zekor betizuekin egindako txorizoa pikantea/gozoa/saltxitxoa (Domina etxekoa), Antsoneako gazta laurdena, litro bat marrubizko Balerdi jogurta, Goldarazko ahuntz gazta (Ekollaondo), ekinazea xaboia, Uhara Antsonegoikoko erreximenta, Imendiko Sagardoa eta Mitxelezeneako kilo erdi ezti.

Eskaerak 674 366 920 mugikor zenbakira deituta jasoko dira azaroaren 11a baino lehen. Eskatutako saskiak azaroaren 13an jasoko dira Araizko udaletxean (17:00-19:00).

Dagoeneko eskualdeko 35 entitatek eman dute izena Euskaraldian

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da Euskaraldiaren bigarren edizioa eta dagoeneko izen-emateen azken txanpan gaude. Aurten, Belarriprest eta Ahobizi rolez gainera, entitateei ere parte hartzeko aukera emanen zaie Ariguneen bitartez. Gurean 35 entitatek ematen dute izena eta 45 Arigune izanen ditugu. Euskal Herri osoan, 25.000 Arigune baino gehiago sortu dira eta 421 udalerritan osatu dira Euskaraldia batzordeak. Hizkuntza ohiturak astindu eta euskararen erabilera handitzea dira ekimen horren helburuak. Aurten gainera, salgai jarriko dira Euskaraldiaren bandegorak Euskara Zerbitzuan eta AEK Euskaltegian, 5 eurotan. Giroa berotzen joateko, abenduaren 4an, ostirala, Txo-txor bakarrizketa umoretsua antolatu da (eguna eta ordua zehazteke). Gogoratu, azaroaren 19an amaitzen dela izen-emateko epea. Beraz, oraindik ez baduzu eman, pentsatu, prestatu, aukeratu zure rola eta eman izena www.euskaraldia.eus atarian, eskualdeko udaletxeetan, Mitxasenean Kultur Etxean edota Larraungo AEK Euskaltegian.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK.
KOPA. BERGIZAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldiro eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

Ingurumena balioan jartzen eta garapen-ereduaz hausnartzen

Larraun Ura eta Lurra proiektuak abian jarraitzen du, inguruneak eskaintzen dizkigun baliabideak balioan jarri bailararen garapen ereduaz hausnartzeko ekimen ezberdinen bidez. Hala ere, faktore ezberdinek eraginda etenaldi bat egin behar izan da.

Urriaren 4ean, *Uraren zikloa Larraunen* izenburupean, txango gidatua egin zen Iribastik abiatuta. Aurrez izena emandako 30 lagun elkartu eta lau ordu inguruko ibilbidea egin zuten. Aitzarratetako iturburua, ura edangarri egiteko Ertzila Ur Partzuegoko tratamendu-planta, Lezegalde sima, zentral hidroelektrikoa, Larraun ibaiaren iturburua eta Lekunberriko erabilitako uraren araztegia bisitatu zituzten. Bidean zehar, hainbat hizlari hartu zuten parte eta gai ezberdinak landu ziren: uraren ziklo naturala; gizakiaren esku-hartzea nolakoa den eta nolakoa izan beharko lukeen modu arduratsuan jokatzeko; ur horren banaketa, erabilera eta garbiketa ibilbidea; prozesu karstikoaren nondik norakoak; Iribasko iturburuaren gune naturalaren balio geologikoa eta espeleologian izan duen garrantzia... Eduki interesgarriak betetako jardunaldia izan zen Larraungo Udalak, NILSA, Ertzila Ur Partzuegoa, Satorrak espeleologia taldea, Ignacio Navarro eta Iñaki Garañoren parte hartzearekin batera antolatutakoa.

Azaroko programazioa kolokan

Nafarroako Gobernuak hartutako COVID-19aren aurkako neurri berrien ondorioz, ordea, neurri horiek indarrean dauden bitartean, behin-behinekoz, *Ura eta Lurra* proiektuko ekitaldi guztiak bertan behera uztea erabaki zen. Hortaz, urriaren 16rako aurreikusia zegoen Lezegaldeko espeleologia-aurkikuntzei buruzko hitzaldia (Astitzen) eta 24rako programatutako artzantzari buruzkoa (Errazkinen) ere ezin izan ziren egin. Kolokan daude ere azaroan egitekoak diren ekitaldiak. Pandemiaren eta horren aurkako prebentzio-neu-

rrien bilakaeraren arabera, ekitaldiak berri ere abian jarriko diren edo ez, Larraungo Udaletik eta *Ura eta Lurra*

proiektuaren antolakuntzatik jakinaraziz joango dira.



Intzako galtzina-labea eta teileria berreskuratze bidean

Galtzina-labea, Uzukuko ur-jauzia eta teileria balioan jartzeko lehen pausoak eman ditu Iturraskarrik Intzan.

26



Mailocean, Uzukuko zuloan, lurrez estalita eman ditu urte asko eta asko galtzina-labe batek Intzan. Herritar baten txikitako oroitzapenetan zegoen ordea. Miguel Iriartek gogoan baititu oraindik umetan han jolasten ibiltzen zirenekoak. Berak emandako argibideei esker, joan den hilean Iturraskarriko langileek galtzina-labea aurkitu eta hiru egunez goizetik iluntzera bitarte, gelditu gabe, ibili ziren karobiaren gainean zegoen lurra eta harriak kentzen.

Juanjo Zubieta (Iturraskarriko lan-taldeko arduraduna): *“Ingurua sasiz eta zuhaitzez beteta zegoen, eta galtzina-labea lurrez beteta aurkitzen zen. Behealdetik ez zen antzematen hor galtzina-labea zegoela, baina goiko aldetik zuloa edo tximinia ikus zitezkeen. Araizko Udalaren oniritzia lortu eta berehala hasi ginen lanean”.*

Kasu honetan, eskuz atera behar izan zuten bertan zegoen materia organiko guztia eta ondoren makina baten laguntzaz inguruan zabaldu zuten. Lau metro baino gehiagoko altuera du. Azpirotz-Lezaetan eraberritutako galtzina-labearekin alderatuta ezberdina da. Juanjo: *“Nik Intzakoa zaharragoa dela esango nuke. Honek ez du toberarik eta beste estilo batekoa da. Berezia da, eraikuntza mistoa duelako. Eraiki zutenek malkorra bera aprobetxatu zuten. Malkorra zulatuz egin zuten galtzina labearen alde bat. Eta beste alde berriz, harri landuaz zutitu zuten”.*

Galtzina-labeko zuloan erorikoak saihesteko hesia jarriko dute Itu-

rraskarrikoek eta horrela bukatutzat emanen dute euren lana, baina Ondare Kultur Taldeak Araizko Udalarekin elkarlanean uda aldera ondare hori balioan jartzeko pausoak ematea da asmoa. Juanjo: "Aranzadi Elkarteko adituek emanen dizkigute jarraitu beharreko irizpideak eta eraikuntza horren ezaugarri eta datuak. Galtzina-labea berreskuratzeko prestatuko duten txosten horretan oinarrituz berbera izango da. Teknikoki berreskuratzen errazak izan ohi direnez, ziur aski auzolanen bitartez egin ahal izanen da". Auzolan horietan parte-hartze-ko deialdia eginen zaie intzatar eta arantzatar guztiei. Pareta altxatu eta bizkortu egin beharko da eta informazio panelak ere jarriko dira merezi duen balorea eman eta beste horrenbeste urte iraun dezan.

Teileria

Galtzina-labearena ez da izan azken aldian Iturraskarrik Intzan egindako lan bakarra. Iaz herriko teileria zahararen ingurua garbitu eta bi galerien hustuketa egin zen. Lekunberrin topatutakoa baino txikiagoa da eta paretak falta zaizkio, hala ere galeriak nahiko ongi mantendu dira urte hauetan guztietan. Osasun egoera dela eta ezinezkoa izan da aurten teileria berreskurapen lanekin aurrera egitea, baina hori egiteko ere Aranzadiko kideen laguntza izanen dute Araizko Udalak eta Ondare Kultur Taldeak.

Aurki bisitatzeko leku berriak izanen ditugu beraz Intzan. Ospela izan



arren, paraje ederrean aurkitzen da Uzukuko zuloa. Oinez nahiz autoz iristeko aukera dago gaur egun eta bertan galtzina-labea ez ezik Uzukuko ur-jauzia dago. Eta herriko ermitatik 300 metrotara aurkitzen den teileria berriz ikuspegi ederrak eskaintzen dizkigu.

Argazkiak:

Ezkerrean: galtzina-labearen atea. Goian: Uzukuko ur-jauzia galtzina-labearen ondoan aurkitzen da; Teileria berriz bi galeriak zutik mantendu dira urte hauetan guztietan; Garaiko zenbait teila ere topatu dituzte bertan.

Arg.: Juanjo Zubieta.



“Energia gastua murriztuz zorrak kitatzen ari dira Uitzin”

Kontzeju guztiek bezala, Uitzik ere ez du baliabide handirik. Oro har, irabazi gutxiago ematen dituzte herriko pagadiak. Herrian baso ederrak izan arren, pagoaren balioa jaitsi egin da urte hauetan. COVID19-ak sortutako osasun egoerak gainera, Astizko eta Uitziko Aterpetxearen itxiera ekarri du eta eraikinaren alokairuagatik Kontzejuak jasotzen zuen diru-sarrerera ere galdu egin da. Hala ere, poliki-poliki aurrera doa Kontzejua eta beste zenbait agintalditan sortutako zorrak ordaintzen eta kredituak amortizatzen ari dira.

Gastuak nabarmen murriztu dituzten arren, zenbait inbertsio egitea beharrezkoa izan ohi da. Uitziarrek iaz egindako horietako bat energia gastua murrizteko izan da gainera. Ur-bomba berria jarri zuten Santa Engrazian eta hainbat balbula aldatu zituzten Gurazko iturrietan. Uitzik bi ur-biltegi dauzka: herria ur edangarriaz hornitzeko erabiltzen dena (herri ondoan kokatua) eta Leitza aldera eta 850 metroko garaieran dagoen biltegia, larreetako askak betetzeko erabiltzen dena. Goiko ur-biltegia Santa Engraziko erreka urarekin bete ohi da bomba baten laguntzaz eta biltegitik grabitatez jaitsi ohi da asketara. Bomba horrek duen energia

Ana Aroma lehendakariak, Mikel Orejak, Laida Zabaletak, Carmen Labaienek eta Mikel Irurtiak osatzen dute gaur egun Uitziko Kontzejuko Batzorde Kudeatzailea. Gastuak murriztu, zorrak kitatu eta auzolana indartzea dira dituzten erronka nagusienak.

eta diru gastua nahiko altua izanik, alternatiba bat aurkitu dute. Ezinezkoa izan da bonbaren erabilera ehuneko ehuneko saihestea, uda edo lehorte garaian ezinbestekoa delako. Baina gainerako hilabeteetan, Gurazko iturrietan jarritako balbulei esker, Trinkigaineko biltegia grabitatez elikatzen ari dira.

Bestalde, aurtun kaleko argiteria berrituko dute. Larraungo udalaren aldetik jasotako diru-laguntzari esker, kontsumo baxuko argiak jarriko dira. Baina proiektu handiena lursailen kontzentrazioaren ondorioz berrituko diren eta eginen diren bide berrien lanena izanen da. 2015ean esleitu zen

lursailen kontzentrazioa eta orain Nafarroako Gobernuaren eskutik hainbat bide konpontzen eta bide berriak egiten ari dira. Lan hauek datorren urtean amaitzea aurreikusten da.

Etorkizunera begira, landa eremuko herri askok eta askok duten erronka dute baita ere uitziarrek. Biztanleria mantentzea edo igotzea. Azken urtetan kanpotik etorritako herritarrak dituzte Txurdanean egin zen proiektuari esker. Hamar etxebizitza egin ziren bertan eta horrek jendea erakarri zuen Uitzira. Kontzejuko kideen ustez, hori litzateke gurean defendatu beharreko etxebizitza eredua. Ditugun etxe handiak aprobetxatuz, hainbat etxebizitza egitea. Horrek izugarri erraztuko luke bertako nahiz kanpoko gazteak gurean bizi ahal izatea. Eta bestalde, beharrezkoa ikusten dute hirigintza planetako arauak malgutzera.

Erazagoa dena eta datozen urteotan indartzen saiatuko diren beste alderdia, auzolanena izanen da. Hauetan parte hartzea nahitaezkoa izanen da eta ezin duenak tasa txiki bat ordaindu beharko du. Urtean bi edo hiru auzolan deialdi egin nahi ditu Kontzejuak, herrian egin beharreko gutxieneko mantentze lanak herritar guztien artean egiteko.





Doluan nago

Dolua minarekin zerikusia daukan kontzeptu bat da. Konkretuki gizaki batek bere bizitzako pertsona garrantzitsu bat galtzean duen erantzun natural eta beharrezkoari egiten dio erreferentzia. Galera hau, galera fisikoa baino askoz gehiago da: joan den pertsona horrekiko harremanaren etetea da.

Horrez gain, dolua egoera gehiagoetan gerta daiteke, adibidez: bikote erlazio bat bukatzen denean, asko gustatzen zaigun objektu bat galdu edo apurtzen denean... Dena den, heriotzarekin zerikusia daukan doluari buruz hitz egiten jarraituko dugu, baina prozesu hau izendatutako egoera guztietara orokortu daiteke.

Galdu dugun pertsonaren presentzia fisikorik gabe aurrera egiten ikasteko bidea da dolua, eta nork berea egin behar du. Nire baitan bizitzen dudana sentitzeko eta adierazteko behar dudana denbora eta espazioa da, nire egoera berriari zentzua aurkitzekoa, nire harremanak eta nire baitan dudana mina askatzeko eta transformatzeko denbora, beti ere, nire erritmora. Prozesu honen bukaera da galdu dugun pertsona esker onez gogoratzea.

Prozesu hau naturala da, unibertsal eta osasungarria. Ez da, beraz, gaixotasuna. Hala ere, doluan dauden pertsonak euren burua zaintzen ez badute, gaixotzeko arriskua dute. Momentu hauetan ez dugu ahaztu behar, nahiz eta askotan naturalki

egin: gure elikaduraz, deskantsuaz, ariketa egiteaz, laguntzaz eta babesaz besteak beste.

Bestalde, doluak auto-ezagutzeko bide bat da, non aurrera egin ahala zure buruaren alde ezezaguna ezagutuko duzun. Hasieran ikustea zaila egin arren, aurrera jarraitzeko ahalmena daukagu. Aurreko artikuluan aipatzen genuen erresilientzia kontzeptua.

Dolua dimentsio anitzeko bizipena da. Gure gorputzari eragiten dio, min fisikoa sentiaraziz batzuetan. Baina baita gure emozioei, harremanei, pentsamenduei eta ekintzei ere. Gure barneko nahiz kanpoko mundua, gure baloreak eta gure sinesmenak ukitzen dituen egoera da.

Askotan hitz egiten da dolu prozesua aldi ezberdinetan bereizten dela. Teoria hau Elisabeth Kübler-Ross psikiatrak garatu zuen eta honela definitzen zituen:

1. Ezeztapen aldia: aldi honen funtzioa galerak eragiten duen mina atzeratzea da.

2. Haserre aldia: erresumina eta haserrea dira gailentzen diren emozioak. Pertsona hori ez dela itzuliko onartzen dugunean, frustrazioa pizten zaigu, ulertzen dugulako egoera itzulezina dela eta ez dagoela konponbide posiblerik.

3. Negoziazio aldia: aldi honetan amets egiten dugu, heriotza aldatu daitekeen zerbait delakoan. Bizitako ondorio hori ekiditeko zein estrate-

gia erabili ahal genuen pentsatzen dugu: hau edo beste egin izan banu orain egoera ezberdin batean egongo ginateke?

4. Depresio aldia: barnehuts sentazioa eta tristura bereizgarriak dira aldi honetan. Teknikoki ez dugu depresioari buruz hitz egiten diagnostiko moduan, baizik eta, honi erlazionatuta dauden emozioak azaleratzen direlako, normalak gertuko norbait hiltzen zaigunean. Sentitu dezakegu ez dugula gauza onez disfrutatzea merezi edo ezin garela pertsona hori gabe bizi. Eta gure burua isolatzen dugu.

5. Onarpen aldia: galera onartu eta gero, doluan dauden pertsonak haien barne-minarekin bizitzen ikasten dugu, maite dugun pertsona hori ez dagoen mundu batean. Denbora pasata poza eta plazera sentitzeko gaitasuna berreskuratzen dugu.

Esan beharra dago guztiok ez gara aldi guztietatik pasatzen edo ez nahitaez orden horretan. Esan bezala, dolua forma ezberdinetan azalera tu daiteke eta aldi bakoitzak denbora ezberdineko iraupena izan dezake arrazoi ezberdinen arabera: hil den pertsonarekin genuen harremanaren arabera, heriotza motaren arabera...

Besarkada handi bat prozesu hau pasatzen hari zaretzen pertsonei!

Sara Ruizen omenez idatzitako artikulua, beti gure artean egongo zarela, gure pentsamendu eta bihotzean.

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOA

Moriako migratzaile kanpalekuan gertatutako sutearen inguruko adierazpen instituzionala.
Larraungo Udalak:

1. Elkartasuna adierazten dio pertsona errefuxiatuei, beren eskubideen urraketa sistematikoaren aurrean, muturreko prekarietatera edo hiltzera kondenatzen baititu Mediterraneo itsasoan dagoen hobirik handiengan, osasun publikoak berebiziko garrantzia duen testuinguru batean.

2. Ildo horretan, Europako erakundeei eskatzen die asiloaren arloko nazioarteko legeria betetzen dela bermatzeko, hala nola Genevako Konbentzioa, giza eskubideen arloko hainbat itun eta nazioarteko zuzenbidea, inolako bazterketarik gabe pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko. Era berean, Europako erakundeei eskatzen diegu Europar Batasunak Turkiarekin eta beste batzuekin egindako akordio kriminalak ezabatzeko.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio pertsona errefuxiatuen harrera integrala bermatzeko behar diren funtsak bideratzea, gizarte zibileko erakundeekin batera.

4. Espainiako Gobernuari eskatzen dio pertsona errefuxiatuen harrera eskubidea bermatzeko neurriak hartzea.

5. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko, pertsona migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak defendatzeko ekintzak errazteko.



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

panaderia okindegia
GALBURUeco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

▶ AGENDA



AZAROA

5 - Printza: 18:00etan. Kartelgintza tailerra II. Illustrator programaren ikastaroa.

8 - Printza: 16:00etan auzolana. Apainketa, gelen egokitzapena...

13 - Printza: 19:30ean ogia nola egin tailerra.

20 - Printza: 18:00etan hitzaldia: *Osasungintzari begirada kritikoa I: industria farmazeutikoa*

28 - Printza: 11:00etan. Kale eskalada. Street boulder, kalean eskalatu daitezkeen paretak igoko ditugu.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Printzaren Twitter
kontua:



Araizko argazki zaharrak
biltzen dituen ataria:



Larraungo Udalaren
web orrialdea:



31

▶ MERKATU TXIKIA

LAN BILA

▶ Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

▶ Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIROCA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

EROSTEKO

▶ Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

TAXILON

Lontxo
Otamendi
Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



Etxe bat



bazkide bat

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE
ETA ZUZENEAN BI HILABETERO
EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE
HARTUKO DUZU!



MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:
MAILOPE@LABRIT.NET
638 652 339
[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)